

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI

Deialdiaren xede den Erdi mailako Teknikari plaza (Osasuna eta Ingurumena) Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2026ko otsailaren 24an onartutako 2026ko Lan Eskaintza Publikoan sartuta dago (2026ko martxoaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 59. zenbakian). Plaza hori txanda irekian eta sarbide orokorreko modalitatean sartu zen.

Donostiako Udaleko funtzionarioen plantillako A sailkapen-taldekoa, A2 azpitaldekoa, administrazio bereziko eskalakoa eta azpieskala teknikokoa eta erdi-mailako teknikarien klasekoa da.

Deialdiko plazari lotutako lanpostura sartzeko, Erdi Mailako Titulazioa (Zientzia Esperimentaletako eta Osasun Zientzietako adarra) edo baliokide gradua izatea eskatzen da.

Era berean, "B" gidabaimena indarrean izatea behar da.

Eskatzen den euskararen hizkuntz-eskakizuna C1C1 da, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Deialdia egiteko, hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri bereziak prestatu dira. Hautaketa-prozesua lehiaketa-oposizio bidez egingo da.

Oinarri berezi hauek Donostiako Udalean karrerako funtzionario sartzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten Oinarri Orokorretan jasotzen dena osatzen dute, eta beraz, Oinarri Orokorrak hautaketa-prozesu honetan aplikatuko dira. Oinarri Orokorrak, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2025ko ekainaren 17an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2025ko ekainaren 25an, 119. zenbakian.

A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

La plaza de Técnico/a Medio/a (Salud y Medio Ambiente) objeto de la convocatoria está incluida en la Oferta de Empleo Público del año 2026, aprobada por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián de fecha 24 de febrero de 2026 (publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 30 de marzo de 2026, número 59). Dicha plaza se incluyó en el turno libre, y modalidad de acceso general.

Pertenece al Grupo de Clasificación A, Subgrupo A2, Escala de Administración Especial, Subescala Técnica y clase Técnicos/as medios/as, de la plantilla de personal funcionario del Ayuntamiento de San Sebastián.

Para el acceso al puesto de trabajo asociado a la plaza convocada se exige el requisito de titulación Media (Rama Ciencias Experimentales y de la Salud) o Grado equivalente.

Asimismo se exige estar en posesión del carnet de conducir "B" en vigor.

El perfil lingüístico de euskera exigido es el C1C1, en los términos establecidos por el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco.

Para llevar a cabo la convocatoria se han elaborado las bases específicas que regularán el proceso selectivo por el sistema de concurso-oposición.

Las bases específicas completan lo dispuesto en las Bases Generales que regulan los procesos selectivos para el ingreso como funcionario/a de carrera al servicio del Ayuntamiento de San Sebastián. Las Bases Generales, que son aplicables al presente proceso selectivo, han sido aprobadas por la Junta de Gobierno Local el día 17 de junio de 2025 y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, el día 25 de junio de 2025, núm.119.



Langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, oinarri berezien testua irizpen honi erantsi zaio, onar dadin.

Horregatik guztiagatik, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketa eta Euskarako zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urriaren 29ko erabakiaren bidez emandako eskumenak erabiliz, eta Pertsonak Kudeatzeko Zuzendariak hala proposatuta, honako erabaki hauek hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK

Lehenengoa.- Donostiako Udaleko Erdi mailako Teknikari plaza bat (Osasuna eta Ingurumena) oposizio-lehiaketa bidez behin betiko betetzeko deialdia onartzea, txanda irekiaren eta sarbide orokorreko modalitatearen bidez.

Bigarrena.- Hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri bereziak onartzea, Oinarri Orokorretan arautzen dena osatzen dutenak.

Hirugarrena.- Deialdia eta hura arautzeko oinarri bereziak dagokien euskarri ofizialetan argitaratzea.

Tras la negociación con la representación del personal, el texto de las bases específicas se acompaña al presente dictamen para su aprobación.

En su virtud, el Concejal delegado de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria y Euskera, en uso de las atribuciones que le están conferidas por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 29 de octubre de 2025 y a propuesta del Director de Gestión de Personas, propone a la Junta de Gobierno los siguientes:

ACUERDOS

Primero.- Aprobar la convocatoria para la provisión definitiva mediante concurso-oposición de una (1) plaza de Técnico/a Medio/a (Salud y Medio Ambiente) del Ayuntamiento de San Sebastián, mediante el turno libre y modalidad de acceso general.

Segundo.- Aprobar las bases específicas que regularán el proceso selectivo y que complementan lo dispuesto en las Bases Generales.

Tercero.- Publicar la convocatoria y las bases específicas que la regulan en los medios oficiales que correspondan.

Donostian, sinaduraren egunean.

HAUTAKETA ZERBITZUKO BURUA

PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTU KUDEAKETA ETA EUSKARAKO ZINEGOTZI
ORDEZKARIA